

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

Araua: 1336/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko abenduaren 16koa, 648/2004 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, substantzia eta nahasketak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko 1272/2008 (EE) Erregelamendura egokitzeko

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: **REGLAMENTO (CE) N° 1336/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 16 de diciembre de 2008, que modifica el Reglamento (CE) no 648/2004 para adaptarlo al Reglamento (CE) no 1272/2008 sobre clasificación, etiquetado y envasado de sustancias y mezclas** (Diario Oficial de la Unión Europea, L 354/60, de 31.12.2008 )

**1336/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2008ko abenduaren 16koa,**

**648/2004 (EE) Erregelamendua aldatzen duena, substantzia eta nahasketak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzko 1272/2008 (EE) Erregelamendura egokitzeko**

**(Testu egokia EEEren ondorioetarako)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>.

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedura <sup>(2)</sup> bete dute,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008/EE Erregelamendua, substantzien eta nahasketen sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoak <sup>(3)</sup>, xedatzen du bateratu egin behar dela Erkidegoan substantzien eta nahasketen sailkapena eta etiketatzea. Erregelamendu horrek ordeztu egiten ditu, alde batetik, Kontseiluaren 1967ko ekainaren 27ko 67/548/EEE Zuzentaraua<sup>(4)</sup>, substantzia arriskutsuen sailkapenaren, ontziratzeari eta etiketatzearen alorreko lege-, araudi- eta administrazio-xedapenak bateratzeari buruzkoa, eta, bestetik, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko maiatzaren 31ko 1999/45/EE Zuzentaraua <sup>(5)</sup>, prestakin arriskutsuen sailkapenaren, ontziratzeari eta etiketatzearen alorrean estatu kideek dituzten lege-, araudi- eta administrazio-xedapenak bateratzeari buruzkoa.

(2) 1272/2008/EE Erregelamendua 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruaren esperientzia du oinarri, eta produktu kimikoak sailkatu eta etiketatzeko Orokorrean Bateratutako Sistemari (GHS – Globally Harmonized System) dagozkion substantziak eta nahasketak sailkatu eta etiketatzeko irizpideak gehitu zaizkio (sistema hori Nazio Batuetan onartu zuten nazioartetarako).

(3) Halaber, 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruaren ezarritako sailkapen- eta etiketatze-xedapen batzuk baliagarri dira erkidegoko lege-egintza batzuk aplikatzeko, esate baterako, garbigarri buruzko 648/2004 (EE) Erregelamendua <sup>(6)</sup>, 2004ko martxoaren 31ko, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena.

(4) 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruak ordezteak eta SGA irizpideak txertatzeak eragin ditzakeen ondorioen azterketa egin ostean, ondorioztatu zen Erregelamendua irismenak bere horretan jarraitu behar zuela, 648/2004 (EE) Erregelamenduan Zuzentaru horiei buruzko erreferentziak egokituta.

(5) 2015eko ekainaren 1erako gauzatu behar da 67/548/EEE eta 1999/45/EE Zuzentaruaren jasotako sailkapen-irizpide guztien trantsizioa. 1272/2008 (EE) Erregelamendua arabera fabrikatzaileak, inportatzaileak eta tarteko erabiltzaileak hartu behar dira garbigarri-fabrikatzaileak eta, horrenbestez, Erregelamendu honen esparruan trantsizio horretara egokitzeko aukera izango dute, 1272/2008 (EE) Erregelamenduan arautzen den antzeko epean. (

(6) Horrenbestez, 648/2004 (EE) Erregelamendua aldatu egin behar da.

---

<sup>1</sup> C 120 EO, 2008.5.16koa, 50. or.

<sup>2</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2008eko irailaren 3koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko azaroaren 28koa.

<sup>3</sup> L 353 EO, 2008.12.31, 1. or

<sup>4</sup> EO 196, 1967.8.16koa, 1. or.

<sup>5</sup> L 200 EO, 1999.7.30ekoa, 1. or.

<sup>6</sup> L 104 EO, 2004.04.08koa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**648/2004 (EE) Erregelamenduaren aldaketa**

648/2004 (EE) Erregelamendua honela aldatu da:

1) 1907/2006/EE Erregelamenduaren (<sup>1</sup>) 2006ko abenduaren 30eko bertsioan, 3. artikuluan, 2. paragrafoan azaltzen diren «prestakin» edo «prestakinak» terminoen ordez, «nahasketa» edo «nahasketak» terminoak erabiliko dira testu osoan.

2) 9. artikuluan, 1. paragrafoko sarrerako esaldia testu honek ordeztu du: «Sustantziak eta nahasketen sailkapen, etiketatze eta ontziratzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko abenduaren 16ko 1272/2008 (EE) Erregelamenduko (\*) 45. artikuluan ezartzen denaren kalterik gabe, Erregelamendu honen esparruan substantziak edo nahasketak merkaturatzen dituzten fabrikatzaileek hau izango dute estatu kideetako eskumeneko agintariek eskuratzeko moduan:

---

(\*) L 353 EO, 2008.12.31koa, 1. or.

3) 11. artikuluan, 1. paragrafoa aldatu eta honela utzi da:

«1. 1272/2008 (EE) Erregelamenduko sustantziak eta nahasketak sailkatu, etiketatu eta ontziratzeke xedapenei kalterik egin gabe hartu behar dira 2 eta 6 paragrafoak».

*2. artikulua*

**Indarrean sartzea eta aplikatzea**

Erregelamendu hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik 20 eguneko epean sartuko da indarrean.

Lehen artikuluko 2 eta 3 paragrafoak 2015eko ekainaren 1etik aurrera izango dira aplikagarri. Erregelamendu honetako elementu guztiak derrigorrezkoak izango dira, eta zuzenean aplikagarri izango da estatu kide guztietan.

Estrasburgon emana, 2008ko abenduaren 16an.

*Europako Parlamentuaren izenean, Lehendakaria H.-G. PÖTTERING*

*Kontseiluaren izenean, Lehendakaria, B. LE MAIRE*

---

<sup>1</sup> (3) L 396 EO, 2006.12.30ekoa, 1. or., Bertsio zuzendua: L 136 EO, 2007.05.29koa, 3. or.